

emergentzia-egoerak

5

INFORMAZIO - GIDA



DEFINIZIOAK

Emergentzia

Ustekabeko egoera da emergentzia; pertsona, instalazio eta/edo prozesuei kalte egiteko arriskua sor dezake eta horregatik **behar-beharrezkoa da lehenbailehen neurriak** hartzea, gerta litezkeen kalteak aurreikusi, gutxitu edo indargabetzeko.

Emergentzia-plana

Emergentzia-planari esker **bitarteko teknikoak eta giza baliabideak** era egokian erabiltzeko **plangintza eta antolaketa** egiten da, **emergentzia-egoera** batean gizakiek eta/edo ondasunek ahalik eta ondorio kaltegarri txikienak izan ditzaten.

Ebakuazio horizontala

Solairu beraren barruan egiten den ebakuazio-mota da: gela batetik bestera, edo korridore batera, gune batetik bestera, etab., baina beti solairu berean.

Ebakuazio bertikala

Solairu batetik bestera edo kanpoaldera egiten den ebakuazioa da.

HORREKIN LOTURIKO ARRISKU NAGUSIAK:

● SUTEA eta/edo LEHERKETA

- Arrazoiak:
- Arduragabekeriak
 - Ekipoak eta instalazioak gaizki erabiltzea.
 - Sabotajeak.

● ARRISKU KIMIKOA ETA/EDO BIOLOGIKOA

- Arrazoiak:
- lhesak, jarioak, eta abar.

● PERTSONAK MANIPULATZEA

- Arrazoiak:
- Leku jakin bat ebakuatu behar izatea.

PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Emergentziei aurrea hartzeko neurriak

- Zure lanpostua **garbi eta txukun eduki**. Ez pilatu erabiltzen ez dituzun gauzak.
- **Ez erre** lantokiko lokaletan.
- **Ez manipulatu eta ez gehiegi kargatu** linea elektrikoak konexio anizkunak (lapurrak) neurriz gain erabiliz.
- **Deitu mantentze-lanetakoei**, zerbait gaizki edo hondatuta dagoela ikusiz gero, edo argindarrarentzako hartune gehiago behar badituzu.
- **Tresna elektrikoak** erabili ondoren **deskonekta itzazu**.
- Ekipo elektrikoetako (ordenagailu, fax, telefonoko) kableak ondo daudela **egiaztatu aldian-aldian**, ustekabeko zirkuitulaburrak gerta ez daitezen.
- **Erre daitezkeen materialak** (trapuak, paperak eta abar) **ez itzazu jar** argi-iturri, berokuntza-instalazio eta horrelako lekuen ondoan.
- **Erre daitezkeen produktuak** erabiltzean eta gordetzean ahalik eta arreta handienaz jokatu, batez ere instalazio itxietan eta isolatuetan ari bazara. Behar dituzun kantitateak bakarrik erabili eta ez itzazu berotasun-iturrien ondoan ipini.
- **Sugarrak, txinpartak eta abar sorrarazten dituzten lanak egitean kontu handiz ibili**. Aztertu aldez aurretik noiz eta non egin behar diren lanak.
- **Sua itzaltzeko ekipoetara** (itzalgailuak, tutuak, alarmak...) iristeko **pasabidea libre utzi**.
- Zure lantokia, eskura dituzun itzalgailuak eta hurbilen dituzun larrialdietako irteerak ondo ezagutu.

2. Erabil daitezkeen babes-baliabideak ezagutzea

Zure inguruan **babeserako baliabide** batzuk aurkituko dituzu, batez ere suteak kontrolatzeko eginkizuna dutenak, eta horiek ezagutzea komeni zaizu. Zure lanpostuan zer baliabide dituzun begiratu eta **parte har ezazu eskaintzen dizkizuten informazio-saioetan**. Zure eta guztion segurtasunagatik eskatzen dizugu.

Baliabide material erabilgarriak:


Eraikinaren egitura:

- **Babes pasiboa** ematen digu, bere materialak suari aurre egiteko prestatuak daudelako, solairu berean eremu desberdinak bereizten dituen antolaketa duelako eta ebakuaziorako bide egokiak dituelako, beste zenbait arrazoiren artean.
- Mantentze-lanak egin eta txukun eta garbi eduki behar da. Ez ezazu inoiz materialik utzi ebakuazio-bideetan, eta ez manipulatu suaren aurkako atak.

Baliabide teknikoak.

Babes aktiboko baliabideak dira. Zure lantokian honakoak aurkituko dituzu:

- Detekzioarako instalazioak (detektagailuak eta sakagailuak), alarma, argiak, seinaleak. Hona hemen zenbait adibide:

Detektagailuak	Sakagailuak	Argiak	Seinaleak
			

- Sua itzaltzeko baliabideak (itzalgailuak, sute-aho ekipatuak, tutu lehorra, ur-hartuneak eta abar)

Itzalgailuak	Sute-aho ekipatuak	Tutu Lehorra	Ur-hartuneak
			

- Mantentze-lanak egin eta txukun eta garbi eduki behar dira. Ez manipulatu instalazio horiek eta utzi libre pasabidea. Zerbait gaizki dagoela nabaritzen gero, abisatu mantentze-lanetakoei.

3. Emergentsia-egoeretan nola jokatu

EZBEHARREN BAT GERTATUZ GERO:

- **Horren berri eman Telefonogunean**. Bertan larrialdiko deia koordinatu eta Ospitaleko Larrialdi Planeko mekanismoa jarriko dute martxan. **Ez ezazu zuzenean deitu kanpora laguntza eske.**
- Susmoa baduzu edo jakinarazten badizute istripuren bat izan dela, **joan zaitetz norbaitekin** adierazitako lekura eta **egiaztatu** benetan hori gertatu den edo ez.
- Ezbeharraren bat gertatu bada, zure esku dagoena bakarrik egin. Sua itzaltzeko baliabideak nola erabili ikasi baduzu, itzal ezazu eman dizkizuten jarraibideak betez. Bestela, edo sua itzaltzea zaila bada, ahal baduzu behintzat, ken itzazu bertatik egoera larriagotu egin dezaketen materialak, deskonektatu aparatuak, eta atera zaitetz **ateak eta leihoak itxi** ondoren.
- Emergentsiari aurre egiteko lanen ardura duen Ospitaleko pertsonaren **esanetara jarri**.
- Behar-beharreneko pertsona bakarrik eman behar diezu **alerta-egoeraren berri**, Ospitalean dauden gainerako pertsonen artean kontrolatu ezineko izua sortu ez dadin.

EBAKUAZIOA EGIN BEHAR IZANEZ GERO

Ospitale bat ebakuatzeko, mailakako ebakuazio horizontaleko printzipiotik abiatzen da, ospitalizazio-aldeetan batez ere sektorizazio-mekanismoak aplikatuz, batez ere ospitalizazio-aldeetan. Jarraitzen den ordena honako hau da:

- 1) Sute-gunetik gertuen daudenak.
- 2) Ebakuatzen errazten direnak (ezinduak ez diren pazienteak eta bisitak).
- 3) Irteeratik gertuen daudenak.
- 4) Gainontzekoak.

Pazienteen **ebakuazio bertikala** ospitale baten barruan ez da eraginkorra izaten denbora asko eskatzen duelako. **Ospitalizazio-aldeetan** suteko emergentzia-egoeretan, **azken aukeratzat hartu behar da**. Kasu horretan ordena honakoa izango da:

- 1) Keak, beroak, sugarrek eragindako solairuak.
- 2) Goiko eta beheko solairuak.
- 3) Solairurik altuenak.

Une jakin batean gerta liteke gela, eremu edo solairu bat ebakuatu behar izatea. Azken kasu horietan bereziki, pertsona jakin batzuk arduratuko dira koordinazio-lanez. Arau orokor gisa, honako jarraibide hauek bete itzazu:

- **Utzi berehala** egiten ari zarena.
- **Ez larritu**, ez hasi korrika, ez egin oihurik.
- Ebakuazioa egin bitartean **lasaitu ezazu** jendea, eta erabakitasunez jokatu.
- Adierazi jendeari non dagoen hurbileneko ebakuazio-bidea edo larrialdiko irteera.
- **Ez utzi INORI** sua dagoen eremura **ITZULTZEN**.
- **Ez utzi inori igogailuak erabiltzen**.
- Ate bat ireki behar izanez gero, hori egin aurretik uki ezazu; beroa badago, EZ IREKI.
- Egiazta ezazu ez dagoela inor eta itxi itzazu ikuskatutako eremuetako ateak.
- Ez utzi jendeari irteeretan pilatzen.

Egoera bereziak:

● Ateratzerik ez baduzu:

- Gela batean sartu.
- Itxi ateak eta leihoak.
- Itxi saretak trapez bustiekin eta hoztu ateak urarekin.
- Leiho ondoan jarri, kanpotik ikus zaitzaten.

● Keaz beteriko lekuak:

- Zeure burua babesteko, estali ahoa eta sudurra zapi batekin.
- Makurtuta ibil zaitez (lau hankan), hormaren ondo-ondotik.